



ANDOAINGO UDALA

HAURTZAROAREKIKO ETA NERABEZAROAREKIKO TRATU ONA BERMATZEKO KONPROMISOAREN ALDEKO UDAL ADIERAZPENA

Azaroaren 20a, haur eta nerabeen eskubideen nazioarteko eguna izanik, udaleko alderdi politikoei ondorengo adierazpena egin nahi dugu:

Andoaingo Udalak, HeziZerb -ekin batera, azken urteotan egin izan duen bezala, haurren eta nerabeen eskubideen bermerako bere konpromisoa berretsi nahi du, izan ere, haurtzaro eta nerabezaro on bat izateko, utziezinak, berezkoak eta nahitaezkoak diren eskubideak bermatu behar dira.

Hartutako konpromiso horrek, eta TRATU ON Programaren barruan, Andoain "haur eta nerabeen herri laguna" izendatu eta errekonozitzeko erronkan aurrerapauso garrantzitsuak ematea ahalbidetu du. Aitortza honetan, haur eta nerabeak entzuna izateko eskubidea, ingurune seguruan bizitzeko eskubidea, haurra eta nerabea izateko eskubidea, oinarrizko zerbitzuetarako eskubidea eta baloratua eta errespetatua izateko eskubidea artikulatzea beharrezkoa izan da, betiere haur eta nerabeekin eta herriko hainbat gizarte-eragileekin batera.

Beraz, gaurko egunean haur eta nerabeen eskubideen aldeko aldarrikapena egin nahi dugu eta bestetik, aurrerantzean ere Andoain tratu onetan oinarrituko den herria izan dadin lanean jarraituko dugula adierazi.

EH Bildu

PSE - EE

EAJ - PNV

Elkarrekin Podemos